

"Euskararen enbaxadore aparta izan zen"

Peio Salaburu

Deia, 2004-10-06: 59.

Hileta elizkizunean zegoen Euskal Herriko Unibertsitateko Juan Ignacio Perez erretoreak atzo DEIAri esan bezala, Martin ugalderen inguruan egun hauetan laudorio eta esker on ugari esan badira ere, idazle eta kazetari andoaindarra bere sorterriarekin adiskidetu zen erbeste eta testuinguru politikoak banatuta. Behin bere Venezuela mestizaturia utzita, etxera itzuli zenean, jasotako esker onen arten Honoris Causa doktore izan zen lehenetakoa. Garai hartan erretore Peio Salaburu zegoen eta erretoreorde, Perez bera. Izendapen horrekin Unibertsitateak bere ibilbide guztia erbestean eta kulturaren errepublikan nortasun berria uztartzen joan zen euskaltzalea goraiatu izan gura zuen. "Horixe izan zen erretore nintzela egin nuen ekitaldi nagusia", adierazi du Peio Salaburuk. "Bere apaltasuna ez da berea bakarri, ezagutzen ditudanetik, familia osoarena da. Hori azpimarratuko nuke".

Aspaldidanik ezagutzen zenuen Martin Ugalde?

Bai, aspalditik ezagutzen nuen. Berarekin izan nuen harreman gehiago Jaurlaritzako Euskara Zuzendari izendatu zutenean. Urtero ikusten nuen, azken urte honetan salbu eta behin baino gehiagotan topo egin genuen.

Martin Ugalde ezagutzen ez duen bati nor izan dela esango zenioke?

Aparta izan zela esango nioke. Traturako benetan aparta zen.

Zer lezio atera behar genuke?

Uste dut izan dela pertsona irekia, euskaltzalea, izan dela traturako atsegina, batarekin eta bestearekin egoten bazekiena. Eta hori izan behar litzateke berarengandik hartu beharko genukeen mezua.

Umila, koherentea, irekia... Gauza asko esan dira. Kultura aldetik zer ekarpen utzi digu?

Berak ekarri zuen Euskal Herrira kazetaritzan zuen eskarmentua, eta gero berak beti mahai gainean euskaltzaletasuna zuen.

Bere azken egunak ez ziren oso samurrak izan.

Ni urtero egoten nintzen berarekin, udan kalean aurkitzen bainuen Hondarribian. Ni askotan joaten naiz hara eta jakina, gero eta apalago, gero eta apalago ikusten nuen. Baina Ana Mari alargunak esaten zidan: "lasai ongi dago". Ezagutzen ninduen beti berak. Gertatzen dena da kanpotik esaten zutela ez zegoela hain ondo, baina berarekin egoten nintzenean, neketan, baina hitz egiten genuen.

"Euskaldunon Egunkaria"ko itxierak ere astindu zuen. Horretaz inoiz berba egiten zuen?

Andreak esan zidanez, ez zioten gauza gehiegirik esan. Orduan ez dakit zenbateraino ohartu zen horretaz, baina hori izugarria izan zen. Gizon honekin egin zutena "Egunkari"ren kontua zela eta, benetan nardagarria izan zen.

Euskal gizarteak zer zor dio?

Bere ekarpena handia izan zen euskal gizartearekin, eta horixe zen berak kanpoan erakusten zuena. Kanpoan zegoen bakoitzean eta handik hona eta hemendik hara zebilenean, berak beti eramaten zuen modu onean Euskal Herriaren izena. Bera oso harro sentitzen zen horrekin eta hori zen kanpoko jendeak ikusten zuena, hain zuzen kanpoko jendeak ikustea euskaldunen izanean Martin Ugalde bezalako pertsonala bat agertzen zela. Euskararen enbaxadore aparta izan zen.

Euskararen normalkuntzari zer nolako bultzada eman zion?

Berak parte hartu zuen, eta izan zuen kargu politiko horretan tinko bultzatu zuen euskararen normalizazioa garai zail batean. Normalizazio horren kontua jende askoren ahaleginaren fruitua da, baina dudarik gabe, berak ekarpen sendoa egin zuen.

Erretore zinela izendatu zuten Andoaingo semea Honoris Causa doktore. Zer nolako garrantzia izan zuen izendapen horrek erretore zinela?

Ni asko poztu nintzen Unibertsitateak honoris causa izendatu zuenean. Postua utzi aurretik nik neuk izan nahi nuen besarkada emango ziona. Eta horixe izan zen erretore nintzenean egin nuen azken ekitaldi handia. Oso pozik nago horrekin, eta oso hunkigarria izan zen.